

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

2020ko zergak eta tasak ordaintzeko borondatezko epea

Nik, Artziniegako Udaleko alkate Joseba Vivanco Retesek:

Jakinarazten dut: 2020ko urriaren 21etik abenduaren 21era bitarteko egun baliodunetan, biak barne, ordaindu ahal izango direla, borondatezko epean, udal zerga, tasa eta prezio publikoen 2020ko ordainagiriak.

Eragindako zergadunek udalaren gordailuzaintzan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak, bulego orduetan, epe horretan.

Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa.

Aipatutako epea bukatutakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, indarrean dagoen Dirubilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenen arabera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2020ko irailaren 23a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES